

BERMEON KALE SALMENTA BAIMENAK ESLEITZEA
KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA

Bermeoko Urian, Intxausti kaleko batzar gelan, 2016ko abenduaren 15ean, goizeko 8:15ak direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Aingeru Astui Zarraga J^a, Zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udaleko Idazkaria
Edurne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, kontratazio mahaiaren idazkaria

Kontratazioaren helburua: Bermeon kale salmenta baimenak esleitzea

Batzarrari hasiera ematen zaio aztertuko den gaiak aipatuz:

- Aurkeztutako dokumentazioaren azterketa

Lehena: 2016ko azaroaren 29an izandako batzarrean 5. salmenta baimena esleitzeko egindako errekerimendua bete ezenez, salmenta postu hori betetzear geratu zen.

Bigarrena: Hurrenkera zerrendako hurrengo eskatzaileari dokumentazio aurkezteko errekerimendua bidali zitzaien.

Hirugarrena: Saltzaile honek, 16.522.483-L NAN zenbakiduna, eskatutako dokumentazioa emandako epe barruan aurkeztu du. Dokumentazio guztia zuzen dago.

Goian aitatutako kontuan hartuta, honako **ERABAKIA** hartzen da:

LEHENA: 16.522.483-L NAN zenbakidun eskatzaileari 5. salmenta postua esleitzea.

BIGARRENA: Osoko bilkurak esleipen hauek bideratzeko ahalmena Gobernu Batzordeari delegatu dionez, hemen jasotako Tokiko Gobernu Batzordeari jakinaraztea bere onarpenerako.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

